

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa aurrera eramateko, hasieran kide bakoitzak 1200€ jartzeaz gain, mailegu bat ere eskatuko dugu Rural Kutxan, horrela gure enpresak edukiko dituen kostu guztiak ordaintzen lagundu ahal izateko.



Gure enpresak hobe funtzionatu dezan, enpresarako garraio bat edukitzea pentsatu dugu, furgoneta handi bat hain zuzen ere. Honek ez digu kosturik suposatuko, izan ere, taldekide batena erabili ahal izango dugu, Aimar Tomerena. Gainera, berak gidatuko du, izan ere, hainbat alditan bidaiatu du eta oso ondo ezagutzen ditu errepideak; horrela gure produktuak garraiatu eta behar diren tokira erraz mugitu ahal izateko.



Nahiak gure web orria sotuko du, izan ere, abilezia handia du internetean eta ziur gaude gauzak egin behar diren bezela egingo dituela. Gainera, interneteko arazo guztiak segituan konpontzeko gai da. Hortaz gain, beste bi kideek ere parte hartuko dute hau eguneratzen eta informazio guztia ondo dagoela ziurtatzen.

Aimar Arranzek bezeroekin harreman estua eta konfidantza transmititzeaz arduratuko da, izan ere, oso ondo eramaten da jendearekin, beraz, oso tratu ona izango du bezeroekin. Enpresa honetan ez dago gure bezeroak baino gauza garrantzitsurik, horregatik tratatuko ditugu benetan merezi duten moduan.

Azkenik, kaskoa ondo saldu ahal izateko eta segurua ekoiztu ahal izateko txirrindulatzitan aditua den pertsona bat behar dugu eta honetarako ezinbestekoa da hirurok parte hartzea, izan ere, guztiok dakigu txirridularitzari buruz eta gure jakinduriak konpartitu ditzakegu. Gainera, hirurok gara txirridulari amorratuak beraz ondo ezagutzen ditugu hauen nahiak. Aimar Arranz eta Aimar Tomeren artean airbag-a muntatuko dute lagun baten laguntzaz, izan ere, biok komunean duten lagun bat da eta zerbait seguru montatzeko gai da.

Laburbilduz, Aimar Tomek furgonetaren bidez gure produktuak garraiatuko ditu; Nahia bezero berriak lortzen saiatuko da, jendeari gure proiektua azalduz eta hau ondo saltzen saiatuz; eta, Aimar Arranzek proiektua aurrera eramango du, bezeroen kezka azaltzen, arazoetat arduratzen, eskaerak nora eraman behar diren esanez... Hau da, enpresa hobetzen saiatuko



da. Azkenik, bulego txiki bat izango dugu gure proiektua aurrera eramateko eta bezeroek eduki ahal dituzten arazoak konpontzeko.

